

Elur-satainaren, *Microtus nivalis* (Martins, 1842), presentzia Euskalerrian

E. CASTIEN*
I. MENDIOLA*

SUMMARY

We have found the Snow vole (*Microtus nivalis*) in three localities of the Basque Country: Ranero in Biscay (30TVN69), the guipuscoan and navarren sides of the Aralar mountain chain, and, finally, Belagoa in Navarre (30TXN75).

The Aralar locality shows the union of both distribution zones of *Microtus nivalis* aquitanicus, considering that it appears between the Pyrenees and Picos de Europa mountain chains, and makes us suppose that there are relictos of this species in the inner mountains of the Basque Country.


Iberia penintsulan iparraldeko mendikate handietan *Microtus nivalis*-aren banakera ongi ezagutzen da. Piriniotan (VERICAD, 1970 eta GARZON et al., 1971) eta Kantauri aldean, Ancares mendikatetik (GARZON et al., 1971) Ramales de la Victoriaraino (NIETHAMMER, 1964), espezie hau aipatu da.

Orain dela gutxi, ohar honen egileek espezie hau, aurkitu ez den Euskalerriko hiru puntutan, harrapatu dute.

Elur-satainak aurkitu diren lokalitateak hauek dira (ikus irudia):

Ranero (Bizkaia), Honen U.T.M.30TVN69 da. Ale bat harrapatu zen, NIETHAMMER-ek (1964) aipatu zuen lokalitatearen ondoan, 700 metro tako altitudetan.

Aralar mendikatea. Bi ale harrapatu ziren, bat mendikatea honen Gipuzkoako aldean, 30TWN76 U.T.M.koordenadetan, eta beste bat Nafarroako aldean, 30TWN85, biak 1.100 metro inguruko altitudetan.



Mapak lan honetan aipatu diren *Microtus nivalis*-en lokalitateak, Iberia penintsulako iparraldean lehendik aurkestu direnekin batera, erakusten ditu.

▲ Ohar honetan aipatutako hiru lokalitateak:

1. Ranero (Bizkaia)
2. Aralar mendikatea (Gipuzkoa eta Nafarroa)
3. Belagoa (Nafarroa)

● Iberia penintsulako iparraldean aipatutako lokalitateak.

* Ornodun Saila, Aranzadi Zientzi Elkartea, Zuloaga Enparantza (Museoa), 20003 Donostia, Gipuzkoa.

Belagoa (Nafarroa). Honen U.T.M. 30TXN75 da. Haran honetan *Microtus nivalis* 1.500 metrotatik go-
ra sarritan harrapatu da.

Hiru kasutan harrapa-zonak kareharrizkoak ziren eta zelaietatik eta larreetatik gertu zeuden, orientazioa hegoalde edo hegoalderanzkoa izanez.

Zona hauen karakteristikak, *Microtus nivalis*-ek bizitzeko dituen preferentziei dagokienez, geroztik VERICAD-ek (1970) konfirmatu zuen ZIMMERMANEN (1965) eritziarekin ados daude.

Aralarreko aipamenak, Picos de Europa eta Pirinio artean dagoelarik, *Microtus nivalis aquitanius*-en banakera zonen lotura erakusten du. Beraz, Euskalerrian Aralarreko kondizioak dituzten mendiak daudela kontutan izanez, batez ere barnealdean, espezie hau beste puntutan azaltzea posible dela pentsa daiteke. Hala ere, zona erlikietan bilatu beharko da, bere banakera ez baitu orokorra ematen.

BIBLIOGRAFIA

GARZON HEYDT, J., CASTROVIEJO, S. & CASTROVIEJO, J.

1975. Notas preliminares sobre la distribución de algunos micro-mamíferos en el Norte de España. *Säugetierkd. Mitt.*, 19,3:217-222.

NIETHAMMER, J.

1964. Ein Beitrag zur Kenntnis der Kleinsäuger Nordspaniens. Z.F: *Säugetierkunde*. 29:193-220.

VERICAD, J.R.

1970. Estudio faunístico y biológico de los mamíferos montañeses del Pirineo. *Publ. Cent. Pirenaico de Biol. Exp.* 4, 231 pp.

ZIMMERMAN, K.

1956. Die Schneemaus, ein Felsentier. *Jahrb. 1956. Ver. Schutze Alpenfl. u.-tiere.*, 47-51, München e. V.